

jokulariak 117

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
negua 2019 invierno

regaluk



**BESARKADA
SARIAK**
EUSKAL AKTOOREEN SARIAK



www.aisge.es

AISGE

es lo tuyo

Si eres actor o actriz audiovisual,

¡HAZTE SOCIO!

No te
costará
nada.

Te beneficiarás
de nuestra labor
asistencial y
formativa

Y recibirás los
derechos que te
corresponden





117

negua
invierno
2019
Azala Iñigo Aranburu



08



12

18

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERIA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Etxea
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvacos.com
eabbilbao@actoresvacos.com
www.actoresvacos.com

SUMARIO

04	EKINTZA SINDIKALA Sobre convenios colectivos y acuerdos Gurutze Bartzarrika	12	Besarkada sariak Eneko Olasagasti, Iñigo Aranburu
05	EDITORIALA Erronka berriak	16	Sormena geletan 2019ko azaroa Jon Ander Alonso
06	BERDINTASUNERAKO BIDEAN Eneritz Artetxe, María Goiricelaya Burón	17	EGINDAKO IKASTAROAK Gorka Garde, Andrés Cortés, Iñigo Aranburu

Koordinazioa, edizioa
Eneko Olasagasti
Maketazioa, diseinua
I. Z.
Inprimategia
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau
denona dela eta gustura
hartuko genituzkela zure iritsi eta
artikuluak.
Recordad que esta revista
es de todos y que
gustosamente recibiremos tus
opiniones y artículos.

**Antzerki konbenioko
batzordea martxan**



Comisión del convenio
teatral en marcha

SOBRE CONVENIOS COLECTIVOS Y ACUERDOS

Tal y como os decíamos en el Boletín 115, a principios del 2019 se nos abría la esperanza de reanudar con más seriedad que nunca la negociación del 1er Convenio de Teatro para Euskadi. En las jornada sobre contratación que organizamos en el mes de junio, en el que estaban presentes distintos agentes que participarían en la Mesa de negociación, otros que estarían representados, Sindicatos y afiliadas/os quedó claro el interés de todas/os en establecer un único instrumento que sirva de referencia para todas las compañías de teatro y para todos las/los actrices/actores que trabajen en sus elencos, en el que se establezcan los mínimos salariales, de contratación y cuestiones de ámbito social que han de presidir las relaciones laborales y para eso necesitamos el convenio.

Desde el texto de trabajo que remitimos a ESKENA y a BESTEOK hace más de dos años, ha habido un parón que a instancias de ESKENA se activó a principios de este año 2019.

De las reuniones de la nuevamente reorganizada Comisión de Teatro, constituida por un grupo de afiliadas/os que ya habían participado de las anteriores mesas de trabajo, se completó en algunos aspectos y se modificó en otros, el texto original y desde el mes de noviembre tanto ESKENA como BESTEOK cuentan con nuestra propuesta.

En cuanto al Acuerdo Audiovisual que hemos venido renovando anualmente, este año 2019 quedó en suspenso su renovación ya que como siempre, está supeditada esa renovación al devenir de la negociación del Convenio y tarifas del Convenio Estatal y esta negociación se

encuentra en un punto de complicación que os resumo a continuación:

La patronal estatal FAPAE se desintegró y en consecuencia había que volver a reorganizar la patronal, de estos trabajos resultaron diferentes patronales, una sopa de siglas y de diferentes intenciones.

A finales del 2018, con esta patronal organizada, parecía que la situación se reconducía con un acta de acuerdo que se suscribió con las patronales pero pocas semanas después una reorganizada asociación patronal PATE, impugnó el acta por haberse constituido la mesa y llegar a acuerdos sin que ellos estuvieran presentes.

Con ánimo de llegar a acuerdos se volvió a constituir nueva Mesa, integrando a PATE y éstos han puesto patas arriba lo antes acordado. No participamos ni directa ni indirectamente en la negociación, pero mantenemos continua comunicación con Madrid. Y por ahora no se ha alcanzado acuerdo en el Convenio Estatal.

Por último, sobre la apertura de negociación del 1er Convenio colectivo del Doblaje de Euskadi, hubo una primera reunión en el Consejo de Relaciones Laborales (CRL) en Bilbao al comienzo del verano en el que además de los Sindicatos ELA, LAB, CCOO, UGT estaban presentes BIEUSE (Asociación de dobladoras/es en euskera), EAB y la patronal constituida por IBAIA y AVESAT (que integra a MIXER). Para formar la Mesa las patronales se emplazaron a reunirse entre ellas para determinar el porcentaje que a cada una de ellas le corresponde en la parte patronal de la Mesa de Negociación.

Parece que el acuerdo entre ellas no ha sido po-

ERRONKA BERRIAK

Urtea joan zaigu, gutxigorabehera, ipini genituen helburuak betez. Ikastaroak, web orri berria, Aktoreon Sarien berpizkundea, "Sor menaren parte izan" Bizkaiara hedatzea, Kontratazioaren gaia aztertuz eta konbenio desberdinei jarraipena eginez. Alboko artikuluan aletzen ditu Gurutzek zehatzago.

Esku artean ditugunak ahantzi gabe erronka berriei eusteko garaian sartuko gara. Artista-ren Estatutotik datozen hainbat harietatik tiraka egin beharko da. Baina somatzen dugu mahai gainean egongo diren gai nagusietako batzuk Hezkuntzarekin zerikusia izango dutela. Bere aurpegi desberdinan. Batetik arte eszenikoetan eta interpretazioan goimailakoa ez den titulazioaren beharra hainbat esparrutan jardun ahal izateko eta bestela berauen txertaketa egiteko hezkuntzako maila desberdinan, bai hezkunta arautuan eta baita orduz kanpoko jardueretan ere. Etorkizuneko erronka nagusietako batzuk hortik datozela uste dugu.

Bere garaian Gipuzkoako Foru Aldundiak, gerora Euskal Herri osora zabaldu zen Eskola Kirola programa martxan ipini zuen gisan, egun Eskola Kultura izeneko programa martxan jartzeko lehen pausoak ematen hasia da. Eta noski, kultur adar diferenteen artean Arte Eszenikoak daude. Laster gaiarekin zerikusia duten aditu eta zaleekin jardunaldi bat antolatzekotan dira. Bertan EABk hartuko du parte eta informazioa gehiago edukitzean zabalduko dugu zuen artean.

Eta beste erronka batzuk ere baditugu jakina: Berdintasuna, Ingurumena, Eskubide sozialak eta giza eskubideak, pentsioak.... Horiei ekin beharko diegu eta borrokan elkartuko gara.

sible, más que por discrepancias en torno al trabajo sobre los porcentajes, por falta de voluntad de ponerse a trabajar y llegar a un entendimiento. Con este panorama, y en el momento de escribir este artículo, estamos convocados los mismos que en verano, más EHBE (Euskal Herriko Bikoizlarien Elkartea) que solicitó ser llamada a la Mesa también, por ser la otra Asociación de Dobladoras/es constituida y tener elaborada otra plataforma de negociación.

Del resultado de esta reunión que se va a celebrar el viernes, 20 de diciembre os informaremos más adelante, pero os adelanto que se asiste a la misma con el firme propósito de constituir la Mesa Negociadora.

Gurutze Bartzarrika

AZKEN ORDUKO ALBISTEA

Boletín honen edición ixteko unean albiste onak jaso ditugu Estatuko Ikusentzunezko Konbenioaren negoziaketari buruz. Azkenean aktoreon ordezkarien eskaera onartzen duen akordioa lortu da. %2aren urteroko igoera bat onartu da 2017tik hasita. Horrek suposatzen du orain arteko soldaten %6,12 igoera pilatua. Hurrengo pausoa gurera ekartzea izango da.

NOTICIA DE ÚLTIMA HORA

A la hora de cerrar la edición de este número del Boletín hemos recibido buenas noticias en torno al Convenio del Audiovisual Estatal. Se ha cerrado la negociación con un acuerdo que contempla una subida anual del 2% a partir de 2017, lo que supone un acumulado del 6,12% de las tarifas actuales. El siguiente paso será adaptarlo a nuestro Convenio.

BATZAR NAGUSIA ASAMBLEA GENERAL

- Otsailak 3, DONOSTIAN, 16:30etan
San Bartolomeko lokala
- Otsailak 4, BILBON, 10:30etan
Bilbao Eszena



BERDINTASUNERAKO BIDEAN



El 30 de noviembre en el Palacio de Miramar, a instancias del Gobierno Vasco y dentro del programa Kultura Auzolarean, se celebró una jornada en la que se abordó la cuestión del género y su proporcionalidad en cuatro disciplinas artísticas: Música, Literatura, Danza y Teatro. Las ponencias correspondientes a ésta última corrieron a cargo de Eneritz Artetxe en la parte artística y María Goicicelaya en la Industrial. En sendos artículos ellas mismas nos resumen lo más destacado de sus investigaciones. Los trabajos están publicados en formato libro y tenemos también el mismo material a disposición de quien esté interesado/a en formato PDF.



Eneritz Artetxe

GENEROA ETA ANTZERKI SORKUNTZA (MIRAMAR. 0.)

Azaroan 30.ean Donostia Miramar jauregian Eusko Jaurlaritzak kulturaren arlo ezberdinan emakume zein gizonek duten presentzia aztertzen duten ikerketa ezberdinak aurkeztu genituen. Goiz osoa iraun zuen eitaldiak. Lehen orduan ponentziak garatu genituen. Alde batetik, literatura, Tere Irastortza eta Ainhoa Novoren eskuistik. Bestetik musika, Ainara Legardon eta Ainhoa Nobok aurkeztuta. Dantza ere izan zuten mintzagai Igor de Cuadra eta Jemina Canok. Eta azkenik antzerkiarena Maria Goirizelaia eta neronek aurkeztu genuen. Ikerlan hauen helburua, arlo bakoitza generoaren ikuspuntutik azterzeaz gain, detektatutako desabantaila eta hauskortasun egoerak ekiditeko eta hauen gainean eragiteko neurriak proposatzea izan da.

Horrela ba, gure lanetako bakoitzaren azken atalean proposamen ezberdinak azaltzen ditugu, gure ikuspuntutik egun bizi dugun egoera hobetzeko lagunduko luketenak.

Miramarren gauzatu zen ekitaldiaren xedeetarko bat ere horixe izan zen hain zuzen ere, bertaratu ziren eragile eta sortzaile ezberdinekin proposamen anitzak bozkatzea. Horretarako lantaldeak osatu eta ikerketetan garatutako neurrien gaineko hausnarketa eta balorazio kolektibo bat eraman genituen aurrera. Lanketa honen ondorioz neurri batzuk lehenetsi behar genituen denon artean, horiek urgentzia handiagoz aurrera eramanak izan zitezen. Esparru bakoitzetik lau neurri aukeratu behar genituen, bi sorkuntzari zegozkionak eta beste bi industriarekin

zerikusia zutenak. Hauek izan ziren antzerkiaren alorean bozka gehien jaso zutenak:

1- Antzerkiaren geruza eta maila guztietau kontzientziazia landuko duten programa ezberdinak garatu eta martxan jartzea; Dantzertin zein beste antzerki eskoletan, antzerki taldeetan, programatzaleekin eta baita komunikabideetan ere.

2- Generoaren gaia aztertzeari jarraikortasuna emango dion lantaldetako espezializatu egonkor baten eraketa (hau sorkuntzan zein industrian proposatu zen eta bietan izan zen aukeratua)

3- Antzerki talde eta produkzio ezberdinetarako generoaren gainekeo mentoring-ak gauzatzeko aukerak ematea.

Izan ere neurri hauek eta beste asko izango dira beharrak muturreko genero binarismo honetan murgildutako jendartea batean kultura egiten gabiltzan bitartean. Gure ikerketa guztiak argi utzi bait dute genero batean edo bestean sailkatua izateak erabateko eragina duela gure sortzaile ibilbideetan. Datuak hor daude eta sortzaile ezberdinen hainbat iritzi, hausmarketa zein biziengoei bai.

Antzerkiari dagokionean (niri antzerki sorkuntzaren atala ikertzea egokituzitzaidan) datu bilketa ezberdinak eta 22 sakoneko elkarritzeta burutu ondoren, nire ondorio nagusiak hauak izan dira:

1- Orain arte klasikoki antzerkia sortzeko erabili izan den egitura oso androzentrikoa dela eta patriarkatuaren ezaugarri berberak dituela: hierarkia, sailkapena, rolen ikuspuntu murritza eta emaitzetan prozesuetan baino arreta gehiago jartzea.

2- Egitura hori patriarkala eta androzentrikoa dela gure jendartea ere hala delako eta bestalde betidanik antzerkia eta kulturaren munduan agindu dutenak gizonezkoak izan direlako.

3- Egitura hori gizonen pentsamendutik eratorria denez emakumezkoei bertara egokitzea zailago egiten zaigu.

4- Bizi garen jendarte heteropatriarkalak berez anitzak diren generoak bitan banatu eta bakoitzari balore eta ezaugarri ezberdinak esleitzentz ditzio:

+emakumeak: etxea, umeak, zaintza, izaera basa, magia, irrazionaltasuna, edertasuna...

+gizonak: ekintzailetasuna, arrazionalitatea, hitza, indarra, zientzia, politika, plaza...

5- Horrez gain jendarte honek gizonezkoei esleitutako funtzioak, baloreak eta gaiak hobesten dituenez besteen gainetik emakumezkoak ibilbideen hasieratik dugu desabantaila hori. Guri eta gure lanei esleitzentz zaizkigun ezaugarri zein gaiak beti bigarren mailako bezala irakurriak izango direlako hau da; ez unibertsalak.

6- Balore hobetsi horien gainean eraikitzen da antzerki kalitatearen kanona. Gizonezkoen baloreetan oinarritzen bada emakumezkoak zailago izango dugu hor sartzea. Horretarako beraz baimen berezi bat beharko dugu, hots; aitapontekotza.

7- Aitapontekotza: gizonezko baten baimena, aipamena, itzala, oneritzia, presentzia, babesarekin askoz ere errazagoa baita emakume baten lana jendartearen aldetik kalitezko bezala irakurria izan dadin. Horrek esan nahi du lan merkaturako sarrera errazagoa izango dela aitapontekotzarekin.

8- Aitapontekotza horrek zor moduko bat sentitzen era-maten gaitu emakumezkoak. Berez gizonena den espazio horretan sartzen utzi gaituztelako eskerrak eman behar moduko bat. Espazio hori berez gurea ez balitz bezala...

9- Plaza eta kultura ez da emakumezkoei esleitutako funtzioen barruan sartzen eta beraz hor egoteak arrotz sentsazioa eragiten digu emakumeoi sarritan. Lupaz begiratzen bait da gure jarduna plazan. Espazio publiko

hori merezi dugula erakusteko auto exijentzia handiaz jokatzen dugu gehienetan emakumeok. Horrek plazereko, gozamenerako, lasaitasunerako eta osasunerako dituen ondorio latzakin.

10- Antzerki sorkuntzako lanpostu estrategiko batzuetan errazago irudikatzen ditugu gizonezkoak; hitz hartea eta boterearekin zerikusia dutenak; zuzendaritzeta autoreta.

11- Botere postuetan gizonezkoak daudenez oholtza gainetan islatzen den ikuspuntua androzentrikoa da. Eta batez ere emakumearen gaineke ideia estereotipatu bat; subjetibotasunik gabea edo umetua.

12- Patriarkatuak banatzen dituen generoen gaineko funtziok direla eta emakumeek gizonezkoek baino zailtasun handiagoak dituzte beraien bizitza pertsonalak sormen lanarekin partekatzeko (zaintza eta etxea). Ezauigarri hau erabakigarriagoa da birak burutzen dituzten lanpostuen kasuan; antzezleak eta teknikariak.

13- Lanpostu bakoitzean emakume zein gizonei eskatzen zaiena oso desberdina da. Eta hau esanguratsua da adibidez aktoreen kasuan. Emakume aktoreen ibilbideetan sarritan estetikak eta edertasunak (momentuko kanonaren arabera) talentuak baino garrantzia handiagoa izaten duelarik. Rolen aniztasuna askoz ere murritzagoa da emakumezkoen kasuan, komediarekin adibidez oso gutxitán lotzen dira. Izatekotan komedia gordinegia ez bada eta gag onenak gizonezkoen esku utziz gero. Bestalde emakume aktoreen gorputzen gaineko zentsura ikaragarria da (kanona eta adinari dagonikanean).

14- Sortzaile askok sormen egitura alternatiboak proposatzen ditu. Ez dira indarrean daudenekin identifikatzen. Proposatzen dituzten egiturek hurrengo ezau-gariak dituzte:

+Horizontalagoak

+Lanpostuen kontzeptu zabalagoa, parte hartzaleagoa, sortzaileagoa.

+Zuzendariaren figura: bideratzailea, elikatzailea.

+Prozesuei garrantzia ematea emaitzei bezain beste (edo gehiago)

+Pertsonen arteko harremanak eta bizitza pertsonala zaintza.

15- Egitura berri hauek badute zer ikusia sormen gune berrikin baita klasikoki emakumezkoei esleitu zaizkigun jarduteko moduekin ere. Sormen gune hauetariko askok prozesuei eta bertan sortzen diren harremanei ematen diete garrantzia berezia, oholtza gaineko emaitzei bezain beste; Azala espazioa, Arropainenko Arragua, La Fundición aretoa, Baratza aretoa, Garaion Sorgingunea...

Beste hainbat ondorio ere atera ditut baina hauek dira egoeraz jabetzeko laburbilduko nituzkeenak.

Etorkizunerako erantzuteko zain geratzen den galdera hauxe da: gure arloan genero praktika eraldatzaleak izateko beharrezkoa zaigu orain arte hejemonikoak izan diren sormen egiturekin apurtzea?

Nire hipotesia baiezkoa da... baina ikusi beharko. Momentuz hausnarketarako datu eta ideia batzuk azaleratu dira Eusko Jaurlaritzak bultzatu dituen ikerketa hauen bidez.

Antzerki sorkuntzaren gaineko ikerketa honen ondorio nagusiak berriz, EHAZE-k argitaratu ditu bere argitalpen ildoan "Karanbola hirukoitza (emakumeen presentzia euskarazko antzerki sorkuntzan)" liburuaren bidez. Aurrera eraman berri den Durangoko azokan aurkeztu genuen liburua eta gure webgunearren bidez erosi daiteke: www.ehaze.eus

Eneritz Artetxe



¿DÓNDE ESTAMOS? PRESENCIA DE LAS MUJERES Y LOS HOMBRES EN LA INDUSTRIA DEL TEATRO VASCO

Cuando el Observatorio Vasco de la Cultura contactó hace un año conmigo para llevar a cabo este proyecto, no sabía que esta investigación sería tan esclarecedora en lo que a los resultados se refiere. La premisa era clara: realizar un diagnóstico de situación de igualdad de género en el ámbito del teatro, la danza, la música y el libro desde la perspectiva de la creación y la industria en la CAE. ¿Dónde están ellos? ¿Y dónde estamos nosotras? A mí me correspondería la industria teatral, un sector en el que vengo desarrollando mi carrera desde hace años y del que conozco bien el engranaje. O eso pensaba... en aquel momento. Y digo pensaba porque aunque los resultados de la investigación eran un tanto predecibles, ha sido parádome a examinar de nuevo esta industria cuando he podido aterrizar sobre el papel lo que tantas veces había sospechado: querida paridad... ¿dónde te has metido que no te encuentro?

El estudio, para cuyo desarrollo analicé distintos datos, proponía un análisis general de contexto de la CAE, examinando el actual marco jurídico en cuestión de género y extrayendo distintas cifras sobre la Comunidad Autónoma de Euskadi, dando cuenta de la tipología de empleos de las mujeres en el sector cultural vasco y de los actuales hábitos culturales de la población (principales diferencias entre mujeres y hombres). Este análisis posibilitaba así un dibujo de la estructura general de la industria teatral en la CAE sobre el cual aplicar un análisis cuantitativo (estudio de datos) y otro cualitativo (realizando diferentes encuestas y entrevistas a profesionales del sector). Así, realicé una encuesta a 67 profesionales de esta industria y varias entrevistas en profundidad.

ELLOS DIRIGEN Y COPAN LAS LABORES TÉCNICAS; NOSOTRAS LA GESTIÓN Y ADMINISTRACIÓN
Iré directa a los datos, ya que el estudio puede encontrar-

se online. Lo primero a destacar, es que, a pesar de que la presencia de las mujeres es importante en la industria cultural de la CAE, siguen existiendo importantes desequilibrios en torno al acceso al empleo y a los actuales cargos y puestos laborales desarrollados por las mujeres. Así, el 74% de los teatros están dirigidos por hombres, un 69% de los trabajos técnicos son desempeñados por éstos y las mujeres copan las tareas de gestión y administración en un 75%.

Las cifras cambian si nos centramos exclusivamente en la Red de Teatros Vasca SAREA, donde es posible afirmar que las direcciones de programación están ocupadas en el 47% de los teatros por mujeres y un 53% por hombres. En un 32% de estos teatros las labores de comunicación son desarrolladas por mujeres y en un 68% por hombres. El 60% de estos teatros, no obstante, tienen una administración femenina, donde son mujeres las que están al cargo de las tareas administrativas. Y si hablamos de cuestiones técnicas sólo el 17% de los teatros tienen a mujeres al frente de este tipo de tareas.

LOS ALTOS CARGOS SIGUEN SIENDO DE LOS HOMBRES

Las mujeres estamos en la gestión, producción y coordinación, pero siempre desde lugares poco visibles, no existiendo paridad en los altos cargos o puestos de responsabilidad, donde la mayor presencia de los hombres se explica en muchos casos por la longevidad de los equipos estables de muchas instituciones. Asimismo, la división sexual del trabajo y la distribución desigual del uso de los tiempos entre hombres y mujeres sigue siendo el motivo por el cual las mujeres siguen atadas a esa sobrecarga laboral que se extiende de su propio trabajo a los cuidados de la casa, hijos e hijas, personas mayores, etc., obli-

gándolas a desarrollar carreras profesionales mucho más cortas y menos intensas.

Así, y a pesar de que a priori no existe ninguna norma o medida que impida que las mujeres se desarrolle profesionalmente en igualdad de condiciones en esta industria, en la práctica, las mujeres se encuentran en una situación de desventaja que impide que disfruten de las mismas oportunidades y del mismo trato aplicado a los hombres, favoreciendo así la pervivencia y el mantenimiento del orden patriarcal.

¿Y EN EL RESTO DE ÁMBITOS?

Si hablamos de la distribución, podemos igualmente afirmar que esta tarea es desarrollada mayoritariamente por mujeres. Son ellas las que están principalmente al frente de los sellos de distribución vascos.

Si nos centramos en la creación, sin embargo, los resultados arrojan una situación de desigualdad preocupante. Analizada la programación del último año de los tres teatros principales de la CAE (el Teatro Principal, El Victoria Eugenia y el Teatro Arriaga), teatros con una fuerte capacidad de programación, observamos que de las 86 funciones teatrales programadas durante el último año en estos tres teatros, una de las mayores brechas de género en la creación se sitúa en la dramaturgia. A pesar de que uno de los grandes fenómenos de las dos últimas décadas ha sido el incremento de textos teatrales de mujeres sobre nuestras tablas, la brecha sigue dejando la presencia de las mujeres en un 7% frente al 93% de los textos escritos por hombres. La dirección deja también a las mujeres con una cifra muy escasa: un 15% frente al 85% de espectáculos dirigidos por hombres. Las cifras mejoran en los elencos, gracias a los elencos mixtos. Aunque los espectáculos mixtos y los protagonizados sólo por

mujeres se hacen con un 59% de la programación, el 41% de los espectáculos siguen estando protagonizados exclusivamente por hombres.

Respecto al diseño de vestuario, los números están igualados: hombres y mujeres desarrollan esta tarea en un 50%. No así sucede en el diseño de escenografía, donde son ellos los que realizan estas labores en un 74%. Sin duda las cifras más llamativas aparecen en los puestos de carácter técnico: diseño de iluminación y visuales. En ellos, las mujeres están representadas sólo en un 2% y 3% de los espectáculos respectivamente.

¿QUÉ HACEMOS ENTONCES?

La solución no es fácil y las opiniones diversas, pero en este difícil camino hacia eso que llamamos "igualdad", debemos ser conscientes primeramente de la cantidad de mujeres invisibilizadas dentro de esta industria y de los numerosos techos de cristal que todavía existen gracias a una organización social que continúa privilegiando a los hombres. De ahí la necesidad de que las instituciones planteen medidas que contribuyan a mejorar esta situación; medidas que fomenten las cláusulas de igualdad en las convocatorias de ayudas y subvenciones; que fomenten la sensibilización en torno a la problemática; que acompañen la integración de planes de igualdad a nivel estructural de las empresas y entidades y que promocionen la investigación dando cuenta, de forma periódica, de la situación de igualdad de mujeres y hombres dentro de esta industria. Sólo así conseguiremos caminar hacia un lugar mejor, juntos.

María Goiricelaya Burón





MARTXOAK 24 MARZO
20:00 h.
AZKUNA ZENTROA
BILBAO

Testua Eneko Olasagasti/Iñigo Aranburu

Begarko

Dagoeneko jaso duzue posta elektronikoz EABk antolatzen dituen Euskal Aktoreen Sariei buruzko informazioa. Hurrengo lerrotan bozketari buruzko xehetasunak eta berauek egiteko eman behar diren pausoak azalduko dizkizuegu tutoretza baten bitartez. Bozketak EA-Bren web orriaren bitartez bakarrik egingo dira.

1go FASEA

Hautagaien aurkezpena. Nahi adina izen proposatu daitzeke. Hautagaia beti joan behar da ekoizpen batil lotuta. Hautagaiak aurkezteko epea otsailak 5ean bukatuko da. eabdonostia@euskalaktoreak.eus helbidera idatzitzen behar da. Zuen proposamenetaz gain geuk ere zerrendak osatuko ditugu. Norbaitek zerrendatan azalduko nahi ez balu jakinarazi diezagula, mesedezez.

2garren FASEA

Orriotan azaltzen dugun tutoretzak bigarren fase honetan bozkatzeko eman behar diren pausoak azaltzen ditu hiru grafikoren bitartez. Bozketa honetarako epea otsailak 10ean hasi eta eta 29an bukatuko da.

3garren FASEA

Behin betiko bozketa. Zuek 1go fasean gehien bozkutako 3, 4 edo 5 hautagaien artean aukeratu beharko duzue atal bakoitzeko irabazoleak nortzuk diren erabakitzeko. Bozkatearen epea martxoak 1 eta 15aren artean izango da.

INSKRIPZIOA

Urtarrilean zuetako bakoitzak email bat jasoko non LINK edo ESTEKA bat azalduko den. Bertan klikatuz, ERA-BILTZAILEAz gain (helbide elektronikoa) PASAHITZ PERTSONALIZATU BAT eskatuko zaizuen orrialde batetan sartuko zarete. Bakoitzak bere pasahitza aukeratuko du. Hori izango baita web orriaren bitartez bozkatu ahal izateko modua. Inskripzioa egina egongo da.

Habréis recibido por correo electrónico información sobre los Premios de los Actores y Actrices vascas que organiza EAB. En las páginas que siguen y a través de un tutorial os mostramos los detalles y los pasos que hay que dar para poder votar. Las votaciones se realizarán solo a través de la página web de EAB.

1ª FASE

Presentación de candidaturas. El número de candidaturas que se pueden proponer no tiene límite. Las candidaturas tienen que ir relacionadas a una producción. El último día para poder hacerlo es el 5 de febrero. La forma de hacerlo es escribiendo a eabdonostia@euskalaktoreak.eus .Además de vuestras propuestas nosotros propondremos también una lista de nombres. Si alguien no quisiera estar en las listas que nos lo haga saber a tiempo, por favor.

2ª FASE

En el tutorial que adjuntamos os explicamos los pasos a dar para votar en esta fase por medio de tres gráficos. El plazo comenzará el 10 de febrero y se cerrará el 29.

3ª FASE

Votación definitiva. Elegiréis a los y las ganadoras de cada categoría entre los 3, 4 o 5 más votados en la fase anterior. El plazo será entre 1 y el 15 de marzo.

INSCRIPCIÓN

En enero recibiréis un correo electrónico cada uno/a de vosotras con un LINK o ENLACE. Clicando encima entrareis en una página en la que además del USUARIO (correo electrónico) os solicitarán UNA CLAVE PERSONALIZADA. Tendréis que poner vuestra propia clave. Ese será el sistema para poder votar a través de nuestra página web. La inscripción habrá finalizado

TUTORETZA



1go GRAFIKOA

Web orriaren hasierako pantailan menua azaltzen den lekuan SARIAK klikatu behar duzue. (1)
Atala zabaltzerakoan zuen erabiltzailea eta pasa hitza idatzi behar duzu (2).



2garren GRAFIKOA

Pantaila honetan bi zutabe dituzue. Bozketarako erabiko duzuena eskubikoa da. (3)
Hiru atal daude: Zinea, Telebista eta Antzerkia. Atal bakoitzaren gainean klikatuz zabaldu egingo zaizue eta ekoizpenen zerrenda ikusiko duzue. Alfabetikoki ordenatuta azalduko dira. Ekoizpen bakoitzean emakumezkoen eta gizonzkoen hautagaien zerrenda azalduko da. Izen bakoitzaren ondoan laukitxo bat dago. Hor klikatu behar duzue zuen aukera egiteko.

Atal bakoitzean, gogoratu hiru pertsonen hautua egin dezakezuela, hiru emakumezko eta hiru gizonzko. Ekoizpen berekoak ala desberdinak.

Zuen hautuak edo aukerak ezkerreko zutabean azalduko dira. (4) Berrikusi edo errepasatu ezazue zuen aukera. Zerbait aldatu nahi izanez gero lasai egin dezakezue eskubiko zutabean.

Zuen aukera behin betikoa denean ezkerreko zutabeko behekaldean azaltzen den BOZKATU(5) laukitxoan klikatu. Zuen bozketa egina egongo da.



3garren GRAFIKOA

Bozketa bukatu duzu (6). Hemendik aurrera zuen LOGGIN ETA PASAHITZAREKIN bozketa gunean sartzen bazara bozketaren laukitxoak desaktibatuta agertuko dira eta ezkerreko zutabearen beheko partean, laukitxo batean, EZIN DUZU BERRIRO BOZKATU ipiniko du.

TUTORIAL



GRÁFICO 1

En la página de inicio de la web tenéis que clicar en la pestaña PREMIOS (1)

La siguiente pantalla os pedirá introducir vuestro usuario y clave (2).



GRÁFICO 2

En esta pantalla tenéis dos columnas. La que sirve para la votación es la de la derecha. (3)

Hay tres categorías: Cine, Televisión y Teatro. Clicando en la pestaña correspondiente se abre la relación de producciones en orden alfabético. Debajo del título está la lista de candidatos también en dos columnas, mujeres y hombres. Al lado de cada nombre hay un cuadradito. Tenéis que clicar encima para hacer vuestra elección.

Recordad que podéis elegir a tres personas por categoría, tres mujeres y tres hombres, de la misma producción o de producciones diferentes.

En la columna de la izquierda aparecerá vuestra selección (4). Comprobadla y repasadla. En caso de querer realizar cualquier cambio lo podéis hacer todavía en la columna de la derecha.

Cuando la elección sea definitiva buscad en la parte baja de la columna un recuadro (5) con la palabra VOTAR. Clicar encima y vuestra votación habrá terminado.



GRÁFICO 3

Has terminado la votación (6). De aquí en adelante si con vuestro LOGGIN Y CLAVE entráis en la zona de votación encontraréis los cuadraditos desactivados y en la parte baja de la columna izquierda, en un recuadro, podréis leer el siguiente texto: NO PUEDES VOLVER A VOTAR.



SORMENA GELETAN

2019ko azaroa

"Sormena parte izan"eko edizio berria ospatu dugu, oraingo honetan Bidasoa aldean, pasa den azaroan, Irungo Toki Alai eta Irbide ikastetxetako DBH3ko gela banatan, Maite Agirre eta aktore talde bat azken honetan, eta nire kasuan Toki Alain. Zuzendari lanetan jardun naiz berriz ere, bigarren aldia dut. Aurretik ere aktore bezela aritu izan naiz.

Beti bezela sorpresa eta ikasketaz beteriko bidai motz zein intentsoa bizi izan dugu edizio honetan, ikasleekin sortzen den harta emana benetan da interesgarria, adin honetak ikasle talde askok gauza pilo daukate amankomunean (musika tendentziak, hitzegiteko modua, beldurak eta ametsak..) baino harrigarria bada ere beti topatzen zara fiabardura eta gauza berriekin. Zuzendari bezela aurrenekoz Lasarten aritu nintzen, oraingo honetan Irunen eta aktore bezela Donostian, hirurak antzekoak eta desberdinak. Herri desberdinene eragina ere, nonbait, somatzen da. Ikasle gehienak ez daude oihituak horrelako sorkuntza prozesuetan parte hartzen, ez dakite zertan datzan ez eta nolakoa den gure lan egiteko modua, horregatik gutxirekin konektatzeten dira eta harritzen dira, ez dute espero beraien erreferenteak hartuko ditugunik dramaturgiak sortzeko 7 egunetan zehar, eta asko eskertzen dute, parte sentitzen direlako.

Esan behar dut Lasarteko aurreko esperientzia oso baliotsua izan zitzaidala erabakiak hartzeko eta lan dinamika sortzeko denbora gainera etorri gabe. Zeren, 7 egun besterik ez dauzkagu pieza motza sortzeko, horrek suposatzen duenarekin, "ekonomizatu" behar duzu denbora bai ala bai lasai moduan iritsi nahi baduzu azken egunera. Beraz, niretzako zuzendari gisa eta aktoreentzako ere, erronka polita izan da erlojupeko motz honetan parte hartu izana. Presio pun-

tu horrek resolutiboa eta eraginkorra izatera bultzatzen zaitu. Emanaldia lehen aldiz Donostiako Okendo Kultur etxetik Irungo Gordailuan izatera pasa da. Leku interesgarria oso, espazio diafano bat aukera desberdinak ematen dizkizuna eszenikoki, nahiz eta beti argiztapenean hutsuneret bat aurkitu, normala da, ez da gauza hauetarako sortua izan eta. Maite Agirreren taldea pasa zen lehenengo eta nire taldea azkena. Aktoreek (Mikel Ibarguren, Karla Piñero, Xabi "Jabato" Lopez, Adriana Salvo eta Nagore Orbeltzu) primeran eta oso eskuzabal jokatu zuten ziren. "Aulkia beroa" teknika gidatu zuen Esther Uriak beti bezela emanaldiak eta gero eta benetan momento sakonak eta hunkigarriak bizi izan ziren. Besarkadaren edizioa bataiatu genuen momentuan bertan, emozio momento ugari sortu zirelako eta ikasleak pertsonaiekin behin baino gehiagotan besarkatu zirelako. Deigarria izan zen nola sortu ziren beraien (ikasleen) artean debateak, pertsonaiei soluzio eta aholku desberdinak emanez (Zapalduen antzerkia), denboraren zentzua pixkat galdu arte, ezarritako denborak motz gelditu zitzaitzigu eta!

Konklusio modura nik esango nuke partekatze horretaz eta jardunaldi berezi horretaz gain, beti gelditzen dela hazi txiki bat, agian ez ikasle guztietan, baino gutxiengo batean bada ere, hor gure lanak zentzua hartzan du eta guk ere altxor txiki bat eramatzen dugu sari gisa.

Azkenik mila esker Toki Alai eta Irbide ikastetxeetako EABri hau posible egiteagatik eta lan taldeei: Esther, Edu, Maite, Ion, Iñigo, Belen, Irene, Olatz, Jabato, Adriana, Karla, Nagore eta Mikel.

Jon Ander Alonso





LABORATORIO DE INTERPRETACION CON FERNANDA ORAZI

Del 11 al 13 de octubre tuvo lugar en Bilbao el curso-laboratorio de interpretación impartido por la actriz y directora de teatro argentina Fernanda Orazi, organizado por EAB (Euskal Aktoreen Batasuna).

Voy a tratar de plasmar en unas líneas, después de un par de meses, ahora que tanto las ideas como las emociones han pasado ya por el tamiz del tiempo, el trabajo que allí desarrollamos.

Fernanda articuló el laboratorio en una serie de ejercicios, aparentemente simples en sus normas, a partir de los cuales tratamos de desplegar y desarrollar el territorio de pensamientos e ideas que el propio gesto de actuar genera. Un "abordaje", como lo denominaba Fernanda, de la actuación desde todas las ideas que la debilitan o potencian. Como material, una escena de Tío Vania, de Antón Chéjov.

Fernanda nos condujo a la búsqueda, siempre comprometida con el texto, de la singularidad expresiva de cada uno. Expresividad singular que pudimos experimentar cómo surgía solamente a través de la relación intensa con las acciones y con el otro. Pudimos comprobar también cómo si no existe goce en la actuación, no hay lugar para la irrupción de lo singular, y por lo tanto no se pueden tomar decisiones brillantes. Fernanda nos invitó a encontrar dónde está atrapado el personaje, buscando esa implicación en el texto, huyendo de un enfoque psicólogo.

Animándonos a interesarnos por los estados emocionales, más complejos que los sentimentales, y tratando de acomodar ese estado emocional a una expresividad que vaya a favor de lo que queremos contar, pero sin que nos tiranice tener que cambiar expresivamente de forma constante, aprendiendo a

saber valorar cuándo encontramos algo valioso en ese sentido y permanecer ahí, no cortarlo.

Trabajamos también en la búsqueda de lo que hace que un gesto o acción se convierta en acción dramática, observando cómo es la reacción del que lo recibe. Poner la mirada en ese gesto, es lo que lo convierte en teatral, implicándose de esa forma el uno con el otro. Bonito y simple. Dejar pasar al otro a través tuyo. Revelado el gesto del otro, también el otro es consciente de lo que supone lo que hace. La acción está en la relación íntima con el texto y con el otro.

Fernanda nos invitaba a jugar con todo el imaginario, siempre que la acción estuviera activa, implicada. Jugar con el universo expresivo, buscando todo lo que el personaje puede contener, un arco amplio. No pensando cómo es el personaje para no limitarlo.

Termino con unas palabras de Fernanda: Es en el hiato entre el ser humano que actúa y su actuación donde vibra, suena, toca y habla lo que nadie capturará jamás. Todo lo que diremos o escribiremos sobre la actuación serán rodeos y más rodeos.

Gracias a EAB por la organización de este curso, a Fernanda Orazi por lo que nos transmitió con tanta pasión y a mis compañeras Ana, Irene, Judit, Justi, Miriam y Verónica. Fue un placer compartirlo con ellas. Me despido con un verso de Alejandra Pizarnik: "La rebelión consiste en mirar una rosa hasta pulverizarse los ojos".

Gorka Garde





LUCES, CÁMARA... ¡ACCIÓN...!

Luces, cámara y acción... Así de simple y a base de repeticiones, se hace una película. En ocasiones se piensa de esta manera, sobre todo cuando no se está en la piel de un director de cine. Popularmente se dice que "Cada maestro tiene su libro" y lógicamente no hay dos maestros iguales. En este curso de interpretación ante la cámara, hemos tenido el privilegio de ser guiados por Jota Linares, profesor de guion, director de cine, trabajador y buena gente pero sobre todo, un maestro. Con su aguda intuición escénica, ha agitado la batuta hasta hacer sonar el instrumento interpretativo de quienes estuvimos en el curso. Antes de que se encienda la cámara y se escuche la palabra "acción" Ha habido un trabajo de construcción del personaje en equipo y una clara comprensión de la escena que hace que el intérprete no se sienta abandonado. Jota Linares, quien siempre ha recomendado la meditación como medio de autoconocimiento, ha sabido generar un ambiente distendido en el que todo el grupo se ha sentido como parte de una familia. Familia que no solo comparte casa en un encave natural, si no también la experiencia de ser dirigidos con amor. Al fin y al cabo es el amor lo que mueve a un actor-actriz y desde ese amor surge la conexión. Con uno mismo, con la compañera y con el personaje. Esa conexión reflejada en el aquí y el ahora, lo único que existe, en el momento en que le damos vida al personaje y éste vive en la escena. Jota nos ha enseñado entre otras cosas a amar la profesión, a que no hay una manera única de hacer las cosas, que el conocimiento propio es primordial y la felicidad está al alcance de todos. Vivir de la interpretación es solo un paso más, el más importante es vivirla a pesar de la sombra de incertidumbre que planea sobre nuestras cabezas. Desde la convicción de una persona enamorada de lo que hace y parafraseando a Cele (Personaje de la película ¿A quién te llevarías a una isla desierta?) "Brindo por nuestras maravillosas profesiones sin futuro." Ese futuro ocurre cuando el director como un demiurgo dice la palabra mágica ACCIÓN y todo ocurre.

Andrés Cortés



EDITATU ZURE BIDEOBOOKA IKASTAROA: HELBURUA BETETA!

Ikastaroaren publizitateak zioen bezala, dagoeneko ez dut laguntzari eskatu behar nire bideobooka editatzeko; orain nik neuk egin dezaket. Ez iezaizazue eskatu film oso bat muntatzea edo 3D efektuekin lan egitea, baina nire sekuentziak atera ditzaket, moztu, batzuk bestekin elkartu trantsizio desberdinak, titulatu eta, behar izanez gero, azpititulatu eta musika gehitu. Eta nola ez, esportatu eta igo Vimeo edo YouTubera. Helburua beteta!

Baina ez gaitezen lasaitu. Adobe Premier oso programa konplexua da, eta informazio asko jaso dugu lau egunetan. Orain etxearen praktikatzen jarraitza tokatzen da, ikasitako guztia asimilatzeko. Bestela, hilabete barru ordenagailuaren aurrean galdua sentitzeko arriskua izango dugu, ikastaro lehen egunean programa irekitzean bezalaxe.

Beti bidali ahal izango diogu mezu elektroniko bat gure zalantzekin Joselu Castrori, SINCRO-n errealizadore denari. Bere lanarekiko pasio handia duen profesionala eta bere pazientzia gurekin proban jarri duen irakaslea; beti ere ulertzan ez genuen edozer azaltzeko prest.

Azken orduko bajen ondoren azkenean EABko hiru bazkidek bakarrik aprobetxatu dugu aukera hau. Hiru ikasle eta hirurak oso profil desberdinak. Antonio, Martxelo eta ni. Nik abantailarekin jokatzen nuen, duela urte asko jada editatzentz ikerak nuelako. Niretzat errepaso bat izan da, eta herdoilduta neuzkan ezaugtzak berreskuratzeko modu bat. Martxelok ez zuen inoiz editatu aurretik, eta pixka bat gehiago sufritu duen arren, arrakastaz amaitu zuen ikastaro amaieran proposatutako ariketa. Eta Antonio, 80 urte baino gehiagoko gizon zoragarri eta interesgarri bat, izpiritu jakinguratzux etorri zen bideoak editatzeko hau zertan datzan ikustera.

Orain Martxelok bere etxera paella bat jatera gonbidatzeko hitza betetzea besterik ez da falta, ikasitako guztien errepasoa egitearen truke. Beste norbaitek bere bideobook-arekin laguntzeko eskatzen badit... Beno, saia gintezke, baina hobet duzue Joseluren hurrengo ikastaro baten izen ematea. Benetan merezi izan du!

Iñigo Aranburu



SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO DITUZUN ZERBITZUEN DESKONTUAK

SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION

GIPUZKOA

Academia de idiomas OUI	20%	www.academiaoui.com
Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta	15%	www.mikelmartinez.net
Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel	15%	ainhoexki@hotmail.com
Tai Chi Chuan Eskola	15%	www.taichichuaneskola.com
Videos Zazpiterdi	15%	http://zazpiterdi.com/es
Videos Zumeta	15%	www.zumetavideo.com

BIZKAIA

Coach Yannick Vergara	20%	yannickvv@hotmail.com
Librería de Artes Escénicas Yorick	5-15%	www.libreriayorick.com/teatro/
Maquillaje profesional Alicia Suárez	15%	www.aliciasuarez.net
Peluquería Glamuforia	15%	es-es.facebook.com/glamuforia
Videos Yolanda López de Heredia	15%	yolandalzheredia@gmail.com

ANTZOKIKO DESKONTUAK

Alegria Dulantzi	0% <small>Precios populares</small>	www.alegriadulantzi.com
Arriaga Antzokia	25%	www.teatroarriaga.com
Barakaldo	15%	www.teatrobarakaldo.com
Donostiako Antzokiak	10%	www.donostiakultura.com
Elorrio	50%	www.arriolaka.eus/es
Gasteizko Antzokiak	20%	www.principalantzokia.org
Lobiano Kulturgunea (Ermua)	25%	www.ermua.es
San Agustin Aretoa (Durango)	25%	www.durango-udala.net/sanagustin
Oreretako Kulturgunea	10%	www.erreenteria.net
Zornotza Aretoa	25%	www.zornotzaaretoa.net
Zumaia	50%	www.zumaia.eus/es

AISGE

da zurea

Ikus-entzunezko aktorea bazara,
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Musutruk,

Formakuntzan
laguntzaile
izango gaituzu,
lanean babesle

Eta dagozkizun
eskubideen
zaintzaile



aisge

wwwaisge.es

DIRUZ LAGUNDUTAKO BERRIPAPERIA

KOLABORATZAILEA



Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKADI JAURLARTEA
GOBERNURU VASCO

